BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/16

# Ur Partzuergoaren txosten batek Galindoko araztegiak Bizkaiko hondartzetan izan dan azkenengo kutsadura kasuan ez daukala erantzukizunik dino

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Foru Diputatuak, bagilean Bizkaiko kostaldeko hondartza batzuetan bakterio fekalen presentzia hauteman ostean Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egindako txosten baten barri emon dau gaur goizean. Dokumentu horrek baiezten dauenez, Galindoko araztegiaren funtzionamentua "egokia izan da momentu guztietan, eta ondo bete ditu isurketaren baimenean ezarritako mugak". Hori dala eta, "ezin jako, ezelan be, erantzukizuna Galindoko araztegiari leporatu, ezta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lehen sareko operazinoari be".

Horrez gain, eta Talde Popularraren agerraldi eskariari erantzunez, Aldundiko arduradunak hondartzetan kutsadurea gertatzen danean jarraitzen dan prozedurea zehaztu dau. Azaldu dauen moduan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Bizkaiko hondartzetako uraren azterketaren emaitzak bialtzen deutsez hondartzen kudeaketan inplikautako eragileei; emaitza "bainu ez gomendagarria" bada, osasun publikoko zuzendaritzak Udalari, Istripuen prebentzinorako, sorospenerako eta laguntzako zerbitzuari, Bizkaiko Foru Aldundiko hondartzen kontrolari eta beste erakunde batzuei, URAri edo Ur Partzuergoari, besteak beste, jakinarazoten deutse.

Horren ostean bandera gorria jarri eta gertatutakoaren barri emoten da, hondartzan bertan jarritako kartelen bidez, ordu erdiz behin megafoniaz mezua zabalduz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunearen bitartez. Osasun Saila izango da gertakariaren bilakaeraren barri erakunde guztiei emotearen arduraduna.

Elsa Pamparacuatro Podemos Bizkaiako ordezkariak eta Eduardo Andrés Talde Popularrekoak, egun horreetan umeak hondartzetan bainetan egotearen ganean galdetu deutsie diputatuari. Gai hori lehendik ezagutzen eban Elena Unzuetak adierazo dauenez, "ezin doguz ez bainetera behartu". Jesús Lekerikabeaskoa batzordekidea, barriz, ez da ados agertu gertakaria "akatsa" izan dala esan dauen EH Bilduko David Lopategi batzordekideagaz. Ordezkari jeltzaleak azaldu dauenez, "urteko denporaldi jakin batzuetan euri asko egitearen mehatxua dagonean, ezinezkoa da ur horreek betiko moduan tratetea". Marimar Rodriguez sozialistak, bere aldetik, erakundeen arteko koordinazinoa jarri dau balioan.

SAI ARREA BIZKAIAN

Elena Unzueta Foru Diputatuak bigarren agerraldi eskaera bati be erantzun behar izan deutso, oraingo honetan Talde Mistoak egindakoari, Karrantzako janlekuaren eta uri-guneetan sai arreak egotearen ganekoari, hain zuzen be. Orain hilebete egin eban moduan, Aldundiko arduradunak Foru Aldundiak Karrantzako janlekuagaz jarraitzeagaz daukan konpromisoa berretsi dau, eta ez dagola bestelangorik ezarteko asmorik esan dau. Horrez gain, orain hilebete, sai arre baten eta hegazkin baten arteko talka dala eta izandako

istripuagaz erlazionauta, AENAk iparraldeko aireportuakaz foro espezifikoa eratzeko asmoa daukala esan dau, hegazti sarraskijale horren ondorioak aztertzeko.

KLIMAREN ALDAKETEAREN KONTRAKO BURRUKEA

Gaurko saioak Podemos Bizkaia taldearen Arauz Besteko Proposamen baten eztabaidea eta bozketea be jaso dau, Aldundiari klimaren aldaketaren kontrako burrukarako estrategia prestau daian eskatzeko. Estrategia horretan “klimaren faktorea sartuko litzateke eremu zabaleko erabagiak hartzeko prozesuan, gizarteko eragileak eta herritarrak partaide dirala”. Halanda be, ekimenak ez dau aurrera egin, proposamena aurkeztu dauen taldea eta EH Bildu baino ez diralako alde agertu. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak kontra agertu dira, eta Talde Popularra eta Talde Mistoa abstenidu egin dira.

AGERRALDI ESKARIA

Eguneko gai zerrendea, EH Bilduk Mikel Huizi Leiza Zabalgarbi SAko zuzendaria batzordera etorri daiten egin gura izan dauen agerraldi eskariagaz osatu da, 2005ean Zabalgarbin izandako matxuraren ganeko azalpenak emoteko. Talde Popularra eta Foru Gobernua eusten daben taldeak eskari horren kontra agertu dira. Jesús Lekerikabeaskoa jeltzaleak eta Marimar Rodriguez sozialistak gogoratuazo dabe, beste gauza batzuen artean, Zabalgarbi “enpresa pribadua dala” eta Mikel Huizik ez ebala enpresea zuzentzen 2005ean. Azkenik, Talde Mistoa abstenidu egin da.

NOTA DE PRENSA

16/07/18

# Un informe del Consorcio de Aguas exime de responsabilidades a la Depuradora de Galindo respecto al último caso de contaminación de playas en Bizkaia

La Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, se ha referido esta mañana a un informe realizado por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia tras haberse detectado en junio la presencia de bacterias fecales en algunas playas del litoral vizcaíno. Dicho documento confirma que el funcionamiento de la depuradora de Galindo "ha sido adecuado en todo momento cumpliendo holgadamente los límites establecidos en la autorización de vertido", y que por lo tanto, "no se puede atribuir en absoluto la responsabilidad a la depuradora de Galindo ni a la operación de la red primaria por parte del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia".

Asimismo, y respondiendo a la petición de comparecencia del Grupo Popular, la responsable foral ha detallado el procedimiento de actuación en caso de contaminación en playas. Tal y como ha explicado, el Departamento de Salud del Gobierno Vasco remite semanalmente los resultados de los análisis del agua de las playas de Bizkaia a los agentes implicados en la gestión de arenales; en caso de que el resultado fuera de "baño no recomendado" la dirección de salud pública lo comunicaría al ayuntamiento, al Servicio de prevención de accidentes, socorrismo y asistencia, a control de playas de la Diputación Foral de Bizkaia, y a otros organismos como URA o el Consorcio de Aguas.

Seguidamente se procede a implantar la bandera roja y se informa de la incidencia tanto por cartelería de la propia playa, como por megafonía cada media hora y a través la web de la Diputación Foral de Bizkaia. El Departamento de Salud será el encargado de indicar a las diferentes entidades la evolución de la incidencia.

Tanto la representante de Podemos Bizkaia, Elsa Pamparacuatro, como el del Grupo Popular, Eduardo Andrés, han preguntado a la Diputada sobre el hecho de que haya habido menores bañándose en las playas durante esos días. Elena Unzueta, conocedora de esta cuestión, ha explicado que "no podemos obligar a no bañarse". Por su parte el apoderado Jesús Lekerikabeaskoa se ha mostrado en desacuerdo con el juntero David Lopategi de EH Bildu, quién ha tachado el suceso de "fallo". El representante nacionalista ha explicado que "ante la amenaza de grandes precipitaciones en ciertas temporadas del año resulta imposible tratar esas aguas de una manera convencional". La socialista Marimar Rodriguez, por su parte, ha puesto en valor la coordinación interinstitucional.

BUITRE LEONADO EN BIZKAIA

La Diputada Foral Elena Unzueta, ha tenido que responder a una segunda petición de comparecencia, esta vez del Grupo Mixto, en relación al muladar de Karrantza y a la presencia de buitres leonados en zonas urbanas. Tal y como ya lo hizo hace un mes, la responsable foral ha reiterado el compromiso de la Diputación Foral con el mantenimiento del muladar de Karrantza y ha manifestado que no hay intención de fijar otro. Asimismo, y en relación al accidente producido hace un mes debido al choque de

un buitre leonado con un avión, AENA tiene previsto crear un foro específico con los aeropuertos del norte a fin de analizar la repercusión de esta ave carroñera.

LUCHA CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO

La sesión parlamentaria de hoy ha contado también con el debate y posterior rechazo de una Proposición No de Norma de Podemos Bizkaia para instar a la Diputación Foral de Bizkaia a elaborar una Estrategia de lucha contra el cambio climático “donde se integre el factor climático en el proceso de toma de decisiones de base amplia con los diversos agentes de la sociedad y la propia ciudadanía”. La iniciativa, sin embargo, no ha salido adelante al contar únicamente con el apoyo del grupo proponente y de EH Bildu. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han votado en contra, mientras que Grupo Popular y Grupo Mixto han optado por la abstención.

PETICIÓN DE COMPARECENCIA

El orden del día se ha completado con la petición de comparecencia en comisión, por parte de EH Bildu, del actual director de Zabalgarbi Mikel Huizi Leiza a fin de que informe sobre la avería que en 2005 se produjo en Zabalgarbi. Tanto Grupo Popular como los grupos que sustentan al Gobierno Foral se han mostrado contrarios a esta solicitud. El nacionalista Jesús Lekerikabeaskoa y la socialista Marimar Rodriguez han recordado, entre otras cosas, que Zabalgarbi “es una empresa privada” y que Mikel Huizi no dirigía la empresa en 2005. Por último Grupo Mixto se han abstenido.